

## BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

---

Baloretzko proposamena bezeroengana iritsi dadin, gure enpresa nola komunikatzen den eta bere merkatu-segmentuetaraino nola iristen den deskribatu beharra dago.

Hiru kanal mota daude: komunikazio-kanalak, banaketa-kanalak eta azkenik, salmenta-kanalak.

Hala ere, kasu guzti hauetan, bezeroarekiko harreman-puntuak dira eta honako fase hauek bereizten dira kanalen barnean: pertzepzioa, ebaluazioa, erosketa, entrega eta salmenta ondorengoa.

Gure kasuan, zeharkako kanalak erabiliko ditugu, hau da, dendak (propioak eta elkartuak) eta hauen salmentak handitzea eragiten dieten handizkariak.

Lehen esan bezala, lehenik, bezeroak tabernarekin jarriko dira harremanetan, nahi duten janaria eskatu dezaten. Ondoren, janaria tabernakoek prestatuko dute eta azkenik, taberna izango da gurekin harremanetan jarriko dena. Horrela, bezeroaren datuak guri pasa eta guk, beren etxetara edota dauden tokira eramango diegu eskatutakoa, beraiek etxetik mugitu ere egin gabe janariaz disfrutatzeko.

